

# PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Idea hau gizartean ikusten genituen beharrei buruz pentsatzen hasi ginenean bururatu zitzaigun. Uste genuen, jende askok ez zeukala lana lortzeko aukerarik, izan ere gure gizartean, jende askok ezinezkoa du lana lortzea hainbat arazoak direla eta. Horregatik pentsatu genuen "lan" moduko zerbait egitea, enpresentzat ere onuragarria izango litzatekeena.

Gure proiektua hurrengoan datza: Beste lan bat lortzea ezinezkoa duten pertsonak, ikasketengatik, paroan daudenak, paperak ez dituztenak... eta bizitzeko beharrak dituzten pertsonak enpresa batean egingo lukete lan energia lortzen. Hau da, enpresa baten barruan bizikleta estatiko batzuk egongo lirateke prest eta programatuta norbaitek pedalei eragiteko, eta modu horretan energia lortzeko enpresarentzat.

Lan horren truke ez litzateke soilik dirua emango, baizik eta langile bakoitzaren behar pertsonaletan erreparatuz, bakoitzak gehien behar duena eskeiniko zaio egindako lanaren arabera. Adibidez, dirua behar badu, dirua emango zaio, ikasteko matrikula ordaindu, janarirako dirua, etxeetako gastuak... gauza horiek ordaintzen laguntzen arduratuko litzateke enpresa.